

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak 17,5 milioi euro aurreztuko ditu 6 urtetan, indarreko mailegu garestiena amortizatu ondoren

Maileguak, 2014ean legezko egin zenak, urteko 4,9 milioi eurotako kostua zuen interesetan

Asteazkena, 2018.eko martxoak 7

Nafarroako Gobernuak 2014ean Banco Santander erakundearekin formalizatutako mailegu bat amortizatu du. % 3,862ko interes-tasa finkoa zeukan, 2024ean zeukan epemuga eta 4,9 milioi eurotako urteko gastua suposatzen zuen interesetan. Mikel Aranburu Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak eman dio albistearen berri Foru Gobernuari, gaur goizean egin den saioan.



Nafarroak 17,5 milioi euro aurreztuko ditu 6 urtetan, indarreko mailegu garestiena amortizatu ondoren

Gobernu-bilkuraren ondoren emandako prentsaurrekoan Aranburuk berak adierazi duenez, “2014ean oso aurkako baldintzetan formalizatu zen mailegua, Foru Gobernuaren diru-kutxentzako zama handia suposatu izan duelarik”. Ondorioz, “Nafarroarentzako eragiketa ona izan dela” balioetsi du kontseilariak, “datozen 6 urteetan 17,5 milioi euro aurrezteko bidea emango baitu, hau da, ia 3 milioi euro 2024ra arte”.

Maileguak, azken hamarkadan Nafarroarentzako garestiena izan denak eta diru-kutxentzako kostu gehien ekarri duenak, 11,7 milioitako kitapen-kostua zeukan gainera. Nafarroako Gobernuak kitapen horri aurre egin dio eta 128 milioi euro ordaindu ditu mailegua aurretiaz amortizatzen; hortaz, 139,7 milioi eurotako ia den kostua osoa.